

Arte laborategia

Anton Abadia
gazteluaren eremuan,
sormena lantzen ◦ 46-47

Aurtengo aurrekontuetatik 550 milioi gutxiago gastatu nahi ditu Jaurlaritzak

Maiatza bitartean, %17 gutxiago jaso dute ogasunek zergen bidez, eta altxortegian 382 milioi euro daude; hala, 2013a arte defizita ezingo dela zuzendu esan du Ogasun sailbururuak

Carlos Agirrek kargu hartu dio aurreko gobernuari, zergekin bildutakoa gutxitzen ari zela ikusi arren gastuak 400 milioi handitu eta aurreikuspen «kalkulu okerra» egiteagatik ◦ 15



JON URBE / ARGAZKI PRESS

→ **Laboari, esker onez.** Mikel Laboaren bizitzaren eta obra artistikoaren gaineko dokumentala aurkeztu zuten atzo haren gertukoek Igel-doko Buenavista jatetxean, proiektuaren ideia sortu zen leku berean. Mari Sol Bastida artistaren alargunak zuzendu du dokumentala, eta biografia datuak, material grafikoa, Laboaren zuzeneko emanaldiak eta egungo musikariei egindako elkarrizketak batu dituzte bertan. «Mikeli eta guri eginiko oparia da», hala aurkeztu zuen Bastidak. Irudian, Bernardo Atxaga, Iñaki Salvador, Mari Sol Bastida bera eta Josetxo Silguero, aurkezpenean ◦ 34-35

Europako bozetako emaitzak inpugnatu egin ditu II-HEk

Hauteskundeetako «iruzurra» begi bistakoa izan dela adierazi dute, eta helegiteen bidea azkeneraino eramango dutela ohartarazi dute ◦ 8


Koldo Tellitu

Ikastolen kooperatibako lehendakaria

«Ahots bakarra izatea eta egitura ulerterraza sortzea da asmoa»

Kooperatiba sortu berri dute, eta aurtun 101 ikastolek bat egitea espero dute

Elkarrizketa ◦ 13



Koldo Tellitu. MARISOL RAMIREZ / ARP

Iruñerrian euskarazko irratia isiltzeko erabaki politikoa salatu dute

Emititzeari utzi ezearan berak esku hartuko duela esan die Gobernuak Erreniegako antena erabiltzen duten irratiei, tartean Euskalerrria irratia eta EITBkoei ◦ 11

Irlandan berriro egingo dute Lisboako Itunari buruzko erreferenduma

Irlandarrek Lisboako Ituna errazago onar dezaten, eskatutako berme guztiak agindu dizkio trukean Bruselak Irlandako Gobernuari ◦ 20

Plaza » Kultura

«Mikeli eginiko oparia da»

Mikel Laboaren bizitza eta obra artistikoari buruzko dokumentala zuzendu du Mari Sol Bastida kantariaren alargunak

Abeslaria zendu aurretik martxan jarritako proiektuak Laboa «berreskuratu» nahi du

Ainhoa Olartzabal Donostia

Idea sortu zen toki berean aurkeztu zuten atzo *Mikel Laboa (1934-2008)* dokumentala. Kantariak hainbeste maite zuen Igeldo auzoko Buenavista jatetxean. «Udazkenean hemen bertan bildu ginen ni, Josebe Ormazuri [Elkar argitaletxeko arduraduna] eta Debolex ekoizpen etxeko kideak proiektua nola egin pentsatzen hasteko», gogoratu zuen Mari Sol Bastida ikus-entzunezko lanaren zuzendari eta Mikel Laboaren alargunak. Ordurako, kantaria makal zebilen osasunez, baina irrikaz jarraitu zituen DVDaren lehen urratsak. «'Nola doa?', galdegiten zidan, eta nik 'nahikoa mantso' erantzuten nion». Kosta egin baitzaie, Laboaren bizitza eta obra emankorraren ondorioz, dokumentalean zer sartu eta zer ez erabakitzea.

2008ko abenduaren lehenean eten zen betiko Laboaren jarduna, eta haren heriotza gertatu eta gero berrekin zioten dokumentalaren lanari, aurtengo urtarrean. Laster erabaki zuten zer kontatu: «Mikelen bizitza eta obra. Eta horrela, partzialki bada ere, Mikel bera berreskuratu nahi dugu». Bastidak nekez eutsi zion emozioari, eta azkenean gainezka egin zion, dokumentala «Mikeli eta guri eginiko oparia» dela esan zuenean. Txaloekin eskertu zuten erregalua Buenavistan bildu ziren Laboaren gertuko hainbat lagunek: Iñaki Salvadorrek, Josetxo Silguero, Juan Luis Zumetak, Juan Gorritik, Bernardo Atxagak, Daniel Landartek, Pantxo Etxegoiene, Joxe Mari Gorrotxategik eta Koldobika Jauregik, besteak beste. Gipuzkoako ahaldu nagusi Markel Olano eta Donostiako kultura zinegotzi Denis Itxaso ere agertu ziren aurkezpenera.

Kanpoan gelditu dena

DVDan jaso ez dutenaz mintzatzaren hasi zen Bastida; bereziki hiru arlo utzi dituzte kanpoan. Batetik, kantariaren sendagile

jarduera, eta bere profesioak haren obran izan zuen eragina. Bestetik, Laboak arte eta musika estilo anitzei buruz zuen interes handia. Dela musika klasikoa, dela jazz, dela Australiako aborige-

“

Antiguako omenaldian musikari gazteek eginiko saioa asko gustatuko zitzaion Mikeli»

«Beldur eszenikoa galtzen hasi zeneko zuzenekoak oso indartsuak dira»

MARI SOL BASTIDA
Dokumentalaren zuzendaria

nen musika, jakin-min handiz segitzen zituen arte adierazpen askotarikoak.

Baina penarik handiena musikari belaunaldi diferentean artean Laboak egin zuen zubi lanari buruz gehiago ez sakondu izanak

eman dio Bastidari. Izan ere, dokumentalerako egungo musikari eta kantariei eginiko elkarrizketak «asko» moztu behar izan ditu, bai dokumentalaren iraupena ez luzatzearen bai Laboaren bizitza eta obra jasotzeko asmoetatik ez aldentzearen. Albo batera utzi duten bide horretan badela zer ikertu uste du Bastidak.

«Mikelek beti esaten zuen gazteen eskuetan zegoela etorkizuna. Antiguako omenaldian musikari gazteek eginiko saioa asko gustatuko zitzaion». Bastidaren arabera, Laboak ez zion mizkinik egiten gazteek eginiko edozein moldetako musikari. Itoiz taldea sortu aurretik, Indar Trabes izenarekin hasi ziren musikari haien ibilbidea gertutik jarraitu zuen 70eko urteetan, baita Ruper Ordorika kantariarena ere. Geroago, Bap!! edota Dut rock taldeen emanaldiei interes handiz kasu egiten ziela azpimarratu zuen.

Hain justu, dokumentalaren irudirik indartsuenak Laboaren zuzeneko emanaldietakoak dira. «70eko hamarkadaren bigarren erditik aurrera hasi zen beldur eszenikoa galtzen. Orduko zuzenekoak oso indartsuak dira». 15-20 kontzertu gogoangarriak izan zirela kontatu du Bastidak, baina haien grabazio guztiak lortu ez izanaren arantza gelditu zaio barruan. Ezin izan baita kantaria oso-osorik berreskuratu.



Bernardo Atxaga, Iñaki Salvador, Mari Sol Bastida eta Josetxo Silguero, atzo

Abangoardia eta tradizioa batzen diren lekukoa

Gabriel Aresti, Jorge Oteiza eta Koldo Mitxelenaekin parekatu du Laboa Bernardo Atxagak

A. Olartzabal Donostia

Mikel Laboa zeinen tokizalea zen gogoratu zuen Bernardo Atxaga idazleak. Nola harekin Donostian gelditzeko hitzordua egin aldiro Igeldora igo behar izaten zen. «Herri bakoitzean bazuen beti toki jakin bat». Bide bat, plaza bat edo taberna bat. Berak nahi zuen tokira joko zuen herri horietan, beti.

Atxagak ez du inolako zalan-tzarik Laboak euskal kulturaren

bereziki, eta kulturaren oro har, betetzen duen tokiari buruz: «Batetik, abangoardiatik datorrena, eta bestetik, euskal tradizioetik datorrena. Bi toki horien batuketara, nahasketa izan zen bere tokia». Horren adibide dira Laboaren kantagintzako *Pasaia-ko herriatik* bertso tradizionalak edo *Gernika* bezalako kantu esperimentalak.

Maitatua eta ukatua

Atxagak ez du Laboa soilik kokatu toki horretan; belaunaldi bereko hainbat sortzaile lekutu ditu bertan. Besteak beste, Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Gabriel Aresti edota Koldo Mitxelena. Egile horiek guztiak heldu zioten tradizioari abangoardiara jauzi egiteko.

«Toki hori dela-eta, uste dut horregatik izan dela bere bizitza hain korapilatsua, hain tentsioz bete, hain gogorra alde batetik eta hain ezitia bestetik». Atxaga-

“

Ez dadila eror denek maite duten baina aintzat hartzen ez duten lekura»

BERNARDO ATXAGA
Idazlea

ren arabera, ez baita erraza abangoardiaren eta tradizioaren bikoiztasunean bizi eta sortzea. Lehenak gizartetik aldentzea ekartzen du, eta bigarrenak gizartearen onespina dakar,

«gizarteak oso beharrezkoa duen zerbait sortzen baitute». Eta horregatik, «Mikel oso maitatua eta aldi berean oso ukatua izan da». Ez behar bada Jorge Oteiza bezain agerian, baina bai bere mailan, Atxagaren iritziz.

Kontraesan eta tentsio horiek iraun dezaten ahalegina egitea dagokie, Atxagaren aburuz, Laboaren inguruko lagunei: «Ez dadin erori denek maite baina aintzat hartzen ez duten lekura. Arratsaldeko argiarekin denak goxo-goxo jarri eta kito». Hau da, bere benetako lana, bere konplexutasuna ahaztuko ez duen Laboaren figuraren alde egin behar dela dio idazleak. «Arestiren heriotzaren ondoren gertatu bezala, zutik eustea dagokigu bere kontradikzioetan, bere tentsioetan».